

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, UROLAKO INDUSTRIALDEA SA-REN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den uztailaren 24an aho batez onartu zuen Urolako Industrialdea SAREN ekonomia eta finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2017ko ekitaldiari dagokiona.

2017ko urteko kontuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du.

Honela, bada, ondorioztatu du Sozietateak zuzentasunez bete duela 2017ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.